



Ebazpena, 2018ko maiatzaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez zehazten baita zein izango diren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskolatzeko-batzordeen osaera, funtzioak eta antolaketa- eta -funtzionamenduarauak.

Manu hauek ezartzen dute nola onartu Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleak ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan: urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuak eta Hezkuntzako sailburuak urtero ematen dituen aginduek, zeinen bidez ezartzen baita eskabideen aurkezpenaren eta onarpen-epeen egutegi amankomuna.

Aipatutako Dekretuaren 23. artikulua ezartzen duenez, une bakoitzean egondako plazak kontuan hartuz, Hezkuntza Sailak, kasu bakoitzean ezarritako organoen bidez, erabakiko du zer ikastetxetan —publikotan nahiz itunpeko pribatutan— eskolatuko diren prozesu arruntetik kanpo onartutako ikasleak eta, betiere, ikasle horien guraso eta tutoreei entzun ondoren. Kasu orotan, familiaren lehentasunez eta ikaspostuen erabilgarritasunaz gain, kontuan eduki beharko dira beste faktore batzuk, eskola-plangintzari eta orekari lotuak, aniztasuna banatzeko unean ikastetxeen artean.

Zehazki, euskal hezkuntza-sisteman berandu sartu diren Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta derrigorrezko hezkuntzako ikasleak eskolatzeko, aipatutako Dekretuaren 24. artikulua ezartzen du Eskolatzeko Lurralde Batzorde bat eratuko dela lurralde historiko bakoitzean, eta horren funtzioa izango dela, besteak beste, ikasle horiek zein ikastetxetan eskolatu behar diren proposatzea hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkaritari.

Horregatik, Ebazpen honen bitartez, Eskolatzeko Lurralde Batzorde horien osaera eta funtzionamendua erregulatuko da.

Horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.- Eskolatzeko Lurralde Batzorde bat eratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzean. Eskolatzeko-batzordeek osaera hau izango dute:

- Hezkuntzako lurralde-ordezkarria, zeinak Ikastetxe eta Plangintzako lurralde-arduraduna ri eskuordetu ahal izango baitio lehendakaritza.
- Hezkuntzako Ikuskaritzako ordezkari bat, Ikuskaritzako lurraldeburuak izendatua.
- Hezkuntza Berrikuntzako lurralde-arduraduna edo hark eskuordetutako pertsona.
- Ikastetxe eta Plangintzako lurralde-arduraduna.



- Dagokion Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako langile bat, Ikastetxe eta Plangintzako lurralde-arduradunak izendatua; Batzordeko idazkari-lanak egingo ditu.

- Lurralde-ordezkariak batzorderako egoki irizten dien pertsonak batzorderatu ahal izango ditu, aldi baterako edo modu iraunkorren.

2.- Eskolatzeko batzordeek honako funtzio hauek izango dituzte:

a) Hezkuntzako lurralde-ordezkariari proposatzea zein ikastetxetan eskolatu behar diren euskal hezkuntza-sisteman matrikulazio-epe arruntetik kanpo sartu diren Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak.

Proposamen hori egiteko, familiak adierazitako borondateaz gain, EAEko hezkuntza-sisteman modu inklusiboan eskolatzeko printzipioari jarraitu beharko dio Batzordeak, eta, zehazki, irizpide hauei:

- Ikastetxea familiaren etxetik hurbil egotea.

- Ikastetxean eskolatutako anai-arrebak egotea, ahal bada anai-arrebak ez banantzeko.

- Prozesu honen bidez anai-arreba bat baino gehiago eskolatzeko eskatzen bada, erabakiak bateratua izan behar du, ahal bada.

- Eskolatzeko inklusiboa eta orekatua funts publikoekin eutsitako ikastetxe guztien artean, eragin-eremu beraren barruan, eremu horretako ikasleen aniztasunaren erakusgarri izango dena.

- Ahal dela, ikasleak D edo B hizkuntza-ereduko ikastetxeetan eskolatuko dira, baina, Batzordeak egokitzat jotzen duenean, beste faktore batzuk kontuan hartuko dira, esaterako, adina eta ikaslea bizi den eremuko ikastetxeetako hizkuntza-ereduen eskaintza.

- Eskolatzeko eskaeraren arazoia bada familia-unitatea lekualdatzea, gurasoetako edo legezko tutoretako edozeinen nahitaezko mugikortasunaren ondorioz, edo egoitzaz aldatu beharra, genero-indarkeriaren ekintzen ondorioz, hemen eskolatu beharko da eskatzailea, lehentasunez: guraso edo legezko tutoretako baten etxebizitzari edo lantokiari dagokion eragin-eremua duen ikastetxeren batean.

- Ez dira gela berean sartuko Eskolatzeko Batzordearen bidez eskolatutako bi ikasle baino gehiago, betiere beste aukera batzuk badaude eragin-eremuko ikastetxeetan edo eragin-eremu mugakidekoetan, ikastetxearen eta etxearen arteko distantzia bi kilometro baino gehiago izango ez dela. Dena den, urrutiago ere egon daitezke, baldin eta ikastetxe horietarako garraioa Hezkuntza Sailak ordaintzen badu.

Aurreko irizpideen arabera eskolatu ahal izateko, Batzordeak ikaslearen egoera pertsonal eta familiarri buruzko informazioa eskuratu ahal izango du beste administrazio batzuetatik.



b) Aurreko apartatuan zehaztutako funtzioa gauzatzean egindako eskolatzeproposamenei aurkeztutako erreklamazioen eta alegazioen ebazpena proposatzea Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari.

c) Batzordearen bidez eskolatutako ikasleen jarraipena egitea hurrengo urterako onarpen-prozesuan.

d) Eguneratuta edukitzea Batzordearen bidez eskolatutako ikasleei buruzko informazio guztia.

3.- Eskolatzebatzordeek honako antolaketa- eta funtzionamendu-irizpideen arabera jardungo dute:

a) Batzordearen idazkariak egingo du batzarrerako deialdia eta jasoko du batzar horren akta. Aldizkakotasuna eskolatu beharreko ikasle-kopuruaren arabera zehaztuko da.

b) Dagokion urteroko aginduan araututako ohiko onarpen-prozedura amaitu ondoren jardungo du Eskolatzebatzordeak.

Eskolatzebatzordeak berak garatutako jarduerari buruzko txosten bat egingo du hiru hilean behin; txosten hori Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara eta urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuak araututako Eskolatzeko Bermeen Batzordera bidaliko da.

Ikasturtea bukatutakoan, Batzordeak bere jarduerari buruzko memoria bat egingo du.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 25a.

HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA

Stua. Maite Alonso Arana